



67. EUSKAL SOZIOMETROA: HEDABIDEAK - EITB (2018ko ekaina) Prensa oharra

SARRERA

67. Soziometro honen helburu nagusia izan da EAEko herritarren iritziak jasotzea hedabideei buruz oro har, eta EITBri buruz, zehatzago. Egoera ekonomiko eta politikoari buruzko beste gai batzuk ere aztertu dira. Landa-lana 2018ko maiatzaren 8tik 15era bitartean egin zen.

EGOERAREN BALORAZIOA

Euskadiko egoeraren pertzepzioa hobera

Euskadiko egoera ekonomikoaren pertzepzioak 2013an hasitako joera positiboari eusten dio. Herritarren %66ren ustez egoera ona edo oso ona da; 2007tik hona jasotako daturik onena da.

Espainiako egoera ekonomikoari buruzko iritziak ere hobetzen jarraitzen du, baina okerragoa da oraindik ere. EAEko herritarren %75en ustez txarra edo oso txarra da, eta bakarrik %19ren iritziak ona edo oso ona.

Euskadiko egoera politikoari dagokionez, %57k diote ona edo oso ona dela, eta %33k txarra edo oso txarra. Kasu honetan ere Espainiako egoeraren pertzepzioa okerragoa da: %83k uste dute txarra edo oso txarra dela eta %9k bakarrik ona edo oso ona.

Herritarren ustez Euskadiko arazo nagusiak berriz ere lan-merkatuarekin lotutakoak dira (%67k aipatu dituzte hiru arazo nagusien artean), eta ondoren pentsioak (%15), egoera politikoa, politikariak eta gatazka politikoa (%14), etxebizitza eta etxegabetzeak (%14) eta arazo ekonomikoak (%13).

Herritarren %51 guztiz ados daude bizi diren herri edo hiria bizitzeko leku segurua delako ideiarekin, eta %36 gehienbat ados daude.

HEDABIDEAK - EITB

Euskadin hedabideen fidagarritasun, pluraltasun eta independentziaren balorazio ona

Herritar gehienek ustez hedabideak Euskadin fidagarriak dira (%72 guztiz edo neurri batean), askotariko ikuspuntu eta iritziak eskaintzen dituzte (%66) eta presio politiko eta komertzialetatik libre dagoen informazioa eskaintzen dute (%49). Kasu guztietan, EITB taldeko hedabideei buruzko iritzia hobea da hedabideei buruz oro har ematen dena baino. Beren herrialdeko hedabideen fidagarritasun, pluraltasun eta independentziari buruzko iritzirik positiboan dituzten Europako herrialdeen artean dago Euskadi.

Telebista: ETB1 eta ETB2ren kalitatea hobera

EAEko herritarren ustez ETB2 da kalitate onena duen telebista-katea, eta ondoren datoz La Sexta, kate tematikoak, La2, ETB1, Cuatro, Antena3, TVE1, tokiko telebistak eta, azkenik, Tele5. ETB1 eta ETB2ri buruzko iritzia hobetu egin da 2011tik.

Kalitatezko telebista publikoa definitzen duten ezaugarrien artean gehien aipatutakoak dira objektibotasuna informazioan (%56k aipatu du bi ezaugarri nagusien artean), bizi garen gizartearen pluraltasuna islatzea (%38), hezitzailea edo formatzailea izatea (%34), balioekin eta giza eskubideekin konprometitua (%28), entretenigarria eta dibertigarria (%20) eta berritzailea, originala eta sortzailea izatea (%13).

Herritarren %57k diote egunero ikusten dituztela albistegiak telebistan, %29k maiztasun gutxiagorekin, eta %13k inoiz ez. 2011tik nabarmen gutxitu da albistegiak ikusteko maiztasuna; urte hartan %70ek zioten egunero ikusten zituztela.

Albistegi onenak dituen telebista-kateari buruz galdetuta, ETB2 da gehien aipatu dena honelako saioren ikusleen artean.

Irratia: EITBko irratiaren kalitatearen balorazio ona bere entzuleen artean

Identifikazio gehien sentiarazten duten irratiari buruz galdetuta, EITB Taldearen irratiak (Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Gaztea, EITB Irratia eta Radio Vitoria) aipatu dira gehien, Prisa Taldekoekin batera (Cadena Ser eta Los 40). Edonola ere, biztanleriaren zati handi batek ez du inolako irratiarik aipatu (%23) edo esan du ez dela inolako irratiarekin identifikatua sentitzen (%14).

Programazioaren kalitateari dagokionez, entzuleen artean gehien baloratutako EITBko irratiak Radio Euskadi da, eta ondoren Euskadi Irratia, Gaztea, EITB Irratia eta Radio Vitoria.

eitb.eus: erabiltzaileen balorazio ona

Herritarren %26k ezagutzen dute EITBren webgunea, eitb.eus, eta ezagutzen dutenen %53k erabiltzen dute.

Eitb.eus webgunea erabiltzen dutenek balorazio positiboa ematen diote, eta 0tik 10erako eskalan 6,4 puntu eman dizkiote webguneari oro har.

EITBko genero berdintasunari buruzko iritzi ona, baina baita hobetzeko alderdiak ere

Herritarren %47ren iritziak hedabideetan emakumeen eta gizonen trataera oso edo nahikoa berdinzalea da, eta %41en iritziak ez oso edo ez batere berdinzalea. Iritzi hori pixka bat hobea da EITBko hedabideei buruz galdetutakoan: %53ren ustez oso edo nahikoa berdinzalea da eta %20ren ustez ez oso edo ez batere berdinzalea.

Genero berdintasunarekin lotutako alderdi gehienetan puntuazio ona jaso du EITBk: gizon eta emakumeen presentzia orekatua programazioan (6,2 0tik 10erako eskalan), emakumeak eta gizonak berdintasun egoeretan aurkezten dituzten programak ematea (5,9), emakumeen irudi baikorra ematen duten saioak (5,9), emakumeei eragiten dieten gaiak tratatzea (5,8) eta hizkuntzaren erabilera sexistak (5,6). Balorazioa ez da hain ona publizitate sexistak emateari buruz (4,9) eta emakume eta gizonen kirol-emanaldien erretransmisioaz (4,2).

Oro har, 0tik 10erako eskalan 6,3ko puntuazioa eman diote herritarrek EITBk emakume eta gizonen arteko berdintasunari egiten dion ekarpenari.

EITBren pertzepzioa euskararen sustatzaile bezala

Herritarrek 10 puntutik 8,4 punturekin baloratu dute ETB1ek euskararen sustapenean ematen duen laguntza, eta 8,0 Euskadi Irratiak, 7,9 Gazteak, 6,2 Radio Euskadik eta 5,2 ETB2k ematen duena.

Gehiengo zabala (%84) ados daude gaur egun dagoen telebista-kateen zatiketa mantentzearekin, ETB1 euskaraz eta ETB2 gaztelaniaz.

Euskara ongi edo nahikoa ongi ulertzen dutenek 8,1 puntu eman dizkiote EITBn erabiltzen den euskarak eurenarekiko duen hurbiltasun edo antzekotasunari.

Finantziario mistoa eta gestioaren balorazio ona

Herritarren %45en ustez EITB finantzatzeko modurik egokiena finantziario publikoaren eta publizitatearen arteko konbinazioa da; %20k uste dute diru publikoak bakarrik finantzatu beharko litzatekeela eta %21ek publizitatearen bitartez bakarrik.

EITBren Zuzendaritzaren gestio lanari buruz galdetuta, %27k ona edo oso ona dela diote eta %5ek txarra edo oso txarra. %28ren ustez ez da ez ona eta ez txarra. Herritarren %40k ez dakite edo ez dute gai honi buruzko iritzirik eman.

JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

Urkullu Lehendakariak bere baloraziorik onena jaso du

EAJ-PNV da berriro ere begikotasun handiena sortarazten duen alderdia (4,9 0tik 10erako eskalan). Atzetik datoz EH Bildu (3,8), Elkarrekin Podemos (3,7) eta PSE-EE (3,2). PP azken postuan mantentzen da (1,5).

Buruzagi politikoei dagokienez: Urkullu lehendakariak lortu du puntuaziorik altuena (5,5); bere atzetik datoz Andoni Ortuzar (5,0), Arnaldo Otegi (4,0), Idoia Mendia eta Lander Martínez (biek 3,9), eta azkenik, Alfonso Alonso (2,0).

Independentziarekiko jarrerari dagokienez, herritarren %36 kontra azaldu dira, %28 alde edo kontra egongo lirateke egoeraren arabera eta %21 ados daude. %15ek ez dute erantzun.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 2.313 lagunek osatua da. Elkarriketak aurrez-aurre egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 2,1$ ekoa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2018ko maiatzaren 8tik 15era bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 25ean